



# **159. ALDIZKARIA - 2018ko abuztuaren 17a**

## **2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA**

### **2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK**

#### **LAKUNTZA**

#### **Euskara ikasteko laguntzen ordenantza. Behin betiko onespena**

Lakuntzako Udalak, 2018ko maiatzaren 28ko osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Euskara ikasteko laguntza ekonomikoak emateko oinarriak arautzen dituen udal ordenantza.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1 artikuluari jarraituz, maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak aldatu baitzuen, eta jendaurrean egoteko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iraganik, ordenantza hori behin betiko onetsi eta osorik argitaratzeko xedatu da, behar diren ondorioak izan ditzan.

Lakuntzan, 2018ko uztailaren 30ean.—Alkate udalburua, Patxi X. Razkin Sagastibeltza.

#### **UDAL ORDENANTZA, EUSKARA IKASTEKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK EMATEKO OINARRIAK ARAUTZEN DITUENA**

#### **EUSKARA IKASTEKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK EMATEKO OINARRIAK**

Lakuntzako Udalak laguntza ekonomikoak emango ditu honako hauekin bat

#### **OINARRIAK**

##### **1.—Xedea.**

Oinarri hauen xedea da lakuntzar helduak euskara ikastera bultzatzea.

##### **2.—Laguntzak emateko prozedura.**

Diru-laguntza emateko prozedura norgehiagokako araubideari jarraituz tramitatuko da. Horretarako, behar den denboran eta moduan aurkeztutako eskaerak aztertu eta emango dira laguntzak, 3. oinarrian ezarritako betekizunak aplikatzearen bidez.

Horretarako gaitutako aurrekontuko partidaren kargura ordainduko da.

##### **3.—Onuradunek diru-laguntza eskuratzeko bete behar dituzten baldintzak.**

###### **3.1. Eskatzaileak:**

Euskara ikasteko laguntza hau eska dezakete baldintza hauek biltzen dituzten pertsonak:

- a) 16 urtetik gorakoa izatea.
- b) Lakuntzan erroldatuak egotea. Onuradunak erroldaturik segitu behar du ikastaroa amaitzen den egunean, laguntza osoa eskuratu badu. Hala ez bada, kalkulu proportzionala egingo da bajaren egunaren arabera.
- c) Deialdi honetatik kanpo daude administrazio publikoren edo enpresa pribaturen bateko langileak izanik, euskalduntze plan bereziren batean sartuak dauden Lakuntzako pertsonak. Euskalduntze plan horietako batean ez egotearen aitortpena aurkeztuko da.
- d) Diru-laguntza jasotzeko, udalarekiko zerga betebeharrak eguneratuak eduki behar dira.

###### **3.2. Ikastaroak:**

a) Diruz lagunduko dira ikastaro homologatu estentsiboak (120 ordu baino gehiago), intentsiboak (70 ordu baino gehiago) eta barnetegiak (gutxienez 7 egunekoak). Aurreko ikasturtea lagunduko da diruz, ez unean egiten ari dena.



b) Maila bereko ikastaro bakar batengatik jaso dezakete laguntza eskatzaileek, salbuespenezko kasuetan izan ezik. Horiek behar bezala baloratuko ditu organo eskudunak eta eskatutako gutxieneko asistentzia egiaztatuta beharko da (klase orduetatik %80).

**4.–Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.**

Deialdi honetan jasotako diru-laguntzak bateragarriak izango dira bestelako erakunde publiko nahiz pribatuek xede bererako ematen dituzten gainerako guztiekin, baina inoiz ez da gainfinantzaketarik izango. Horrelakorik gertatuz gero, horren berri emango zaio idatziz Udalari, diru-laguntzaren zenbatekoa behar den gehieneko diru-mugaraino gutxitzeko.

**5.–Eskaerak aurkezteko epea eta lekua.**

Eskaerak deialdi hau argitaratu ondoko 15 egun baliodunean aurkeztuko dira Lakuntzako Udaleko erregistro orokorrean. Epe hori luzaezina izango da, eta ez da eskaerarik onartuko epetik kanpo.

**6.–Aurkeztu beharreko dokumentazioa.**

6.1. Eskabide orokorrari erantsita, honako hauek aurkeztuko dira:

–Ikastaroa antolatzen duen entitatearen ziurtagiria. Horrek ikastaroaren ezaugarriak azalduko ditu: iraupenaren datak, maila, ordu kopurua, asistentzia eta kostua. Asistentziak %80tik gorakoa izan beharko du, laguntza kobratu nahi bada.

–Matrikula ordaindu izanaren frogagiria, banku entitateak edo ikastaroa antolatu duen erakundeak egina.

–Diru-sarrera zer banku-libretatan jaso nahi den, libreta haren lehenbiziko orrialdearen fotokopia.

**7.–Laguntzen zenbatekoa.**

7.1. Laguntza gastuaren %50ekoa izango da. Ikasleak ez du jasoko 100 euro baino gehiagoko laguntzarik.

7.2. Nolanahi ere, eta aurrekontuan horretarako den diruaren arabera, eskabide kopurua deialdian den kontsignazio ekonomikoa baino handiagoa bada, ezarritako betekizunak betetzen dituzten pertsonen artean hainbanatuko da.

**8.–Ebazpena eta jakinarazteko epea.**

8.1. Diru-laguntza emateko prozedura antolatu, instruitu eta ebazteko eskumena duen organoa Lakuntzako alkatea izango da.

8.2. Emateko prozedura ebazteko epea hilabete batekoa izango da eta jakinarazpena 10 eguneko epean egingo da.

8.3. Ordainketa behin egingo da banku transferentzia bidez eta emandako kontu korrontearen zenbakira, diru-laguntza emateko ebazpenaren datatik hilabete bateko epean.

**9.–Onuradunaren betebeharrak.**

Onuradunaren betebeharrak dira:

a) Diru-laguntza emateko oinarri den helburua lortzea.

b) Emandako diru-laguntza diru-laguntzaren xede diren gastuak finantzatzeko baizik ez erabiltzea.

c) Organo emaileari erakustea beharkizunak eta baldintzak betetzen direla; era berean, hari frogatzea diru-laguntza emateko edo diru-laguntza jasotzeko arrazoi izan diren jarduerak egin eta helburuak bete direla. Justifikazioa bete dela ulertuko da 6. puntuan eskatu dokumentazioa aurkezten denean.

d) Organo emailearen egiaztapenak onartzea, baita organo eskudunek egin dezaketen beste edozein egiaztapen eta kontrol finantzario ere, eta jarduketa horietan eskatzen zaizkien argibide guztiak ematea.

e) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko lortutako bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen berri ematea organo emaileari. Jakin bezain laster emango da horren berri eta, nolanahi dela ere, jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatu baino lehen.

f) Diru-laguntzak ematen dituen ebazpen proposamena egiten den unean, Udalarekiko zerga betebeharrak eguneratuak izatea.

g) Jasotako diruaren erabilerari buruzko frogagiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatze eta kontrol lanen xede diren bitartean.

h) Ebaluatzaileei lana erraztea.

i) Udalaren Kontu-hartzailetza Orokorrari dagokion egiaztapena onartzea.

j) Ematearen ondorioz ezarri diren betebeharrak partikularrik betetzea.



k) Diru-laguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen ez badira, itzultzea jasotako funts publikoak edo egindako ikastaroaren kostuaren gainetik lortutako soberakina.

**10.–Diru-laguntza itzuli beharra.**

10.1. Diru-laguntza emateko ebazpenari dagokionez, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 36. artikuluan ezarritako deuseztasun edo deuseztagarritasun kasuez gainera, honako kasu hauetan ere bidezkoa izango da jasotako zenbatekoak itzuli behar izatea eta berandutze-interesak eskatzea (diru-laguntza ordaintzen denetik itzuli beharra erabakitzen den egunera artekoak):

a) Diru-laguntza lortu izana horretarako eskatzen diren baldintzak faltsutuz edo hori eragotziko zuketean baldintzak ezkatutuz.

b) Proiektuaren xedea osorik nahiz hein batean ez betetzea edo diru-laguntza ematea oinarritzen duen jokabiderik ez hartzea edo diru-laguntza ematearen ondorioz ezarritako baldintzak ez betetzea.

c) Justifikazioaren betebeharra ez betetzea edo eskatzen dena behar bezala ez justifikatzea.

10.2. Itzuli beharreko kopuruak zuzenbide publikoko diru-sarreretat joko dira; premiamendu-bidea erabiliko da baldin diru-sarrera ez bada egiten ezarritako epeetan.

10.3. Jasotako zenbatekoak osorik edo hein batean itzultzen badira, itzuli beharko dira, behar bada, dagozkien berandutze-interesak. Inguruabar horretatik aparte, eska litezkeen zehapenak ezarri ahalko dira. Itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko (jasotako zenbatekoak osorik edo hein batean) proportzionaltasun irizpideari jarraituko zaio.

**11.–Itzultzeko prozedura.**

Emandako diru-laguntza itzultzeko prozedura, Lakuntzako Udalaren Diru-laguntzak arautzen dituen ordenantzan xedatuari lotuko zaio.

**12.–Ez-betetzeak.**

Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen edozein aldaketak laguntza emateko ebazpena aldatzea edo deuseztatzea ekarriko du berarekin.

**13.–Interpretazioa.**

Deialdi honetan planteatzen daitezkeen arazoak ebazteko eskumena Lakuntzako Udalak du, ez beste inork. Oinarri hauetan jaso ez den gainerako guztirako, aplikatuko da Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako haren erregelamendua, eta harekin bat heldu den gainerako araudia, aplikatzekoa dena.

**14.–Errekurtsoak.**

Ebazpen horrek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta haren kontra, hautara, errekurso hauetakoren bat para daiteke:

–Administrazioarekiko auzi-errekurtoa Nafarroan administrazioarekiko auzietan eskumena duen organoari zuzendua, bi hilabeteko epean ebazpena jakinarazi eta biharamunetik.

–Gora jotzeko errekurtoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazten denetik hasita.

–Berraztertzeko errekurtoa, ebazpen hau eman duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Iragarkiarene kodea: L1809637